**Recurso 9/2014 Errekurtsoa**
**Resolución 7/2014 Ebazpena**

**Lehendakaria / Presidente**
Juan Ramón Ciprián Ansoalde

**Kidea / Vocal**
Mª Aránzazu Arana Learte

**Idazkari - Kidea / Vocal Secretaria**
María Yeregui Hernández

MANTENIMIENTO DE INFRAESTRUCTURAS SA eta SERKOM, GESTION Y SERVICIOS GRUPO MOYUA SL enpresek kontratazio alorreko errekurtso berezia jarri zuten Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako diputatuak 2014ko irailaren 17an emandako 110-C/2014 Foru Aginduaren aurka, Foru Agindu horren bidez UTE UROLA DEBA 2014 aldi baterako enpresa batasunari (FERROSER INFRAESTRUCTURAS, S.A., ASFALTOS URRETXU, S.A. eta CONSTRUCCIONES OTEGUI-GAZTAÑAGA SL) esleitu baitzitzaion Gipuzkoako Urola Kostako eta Deba Kostako (UD eremua) Lehentasunezko eta Oinarrizko sareetako errepideetan eta bizikleta bideetan artapen eta ustiapen lanak egiteko zerbitzu kontratua (espedientea: 4-O-39/2014). Bada, errekurtso berezi hori dela-eta, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, 2014ko urriaren 31n egindako bileran, goian aipatutako kideak bertan daudela, erabaki hau hartu du aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por MANTENIMIENTO DE INFRAESTRUCTURAS, S.A. y SERKOM, GESTIÓN Y SERVICIOS GRUPO MOYUA, S.L. contra la Orden Foral de la Diputada de Movilidad e Infraestructuras Viarias 110-C/2014, de 17 de setiembre de 2014, por la que se adjudica a UTE UROLA DEBA 2014, constituida por las empresas FERROSER INFRAESTRUCTURAS, S.A., ASFALTOS URRETXU, S.A. y CONSTRUCCIONES OTEGUI-GAZTAÑAGA, S.L., el contrato de los servicios de ejecución de diversas operaciones de conservación y explotación de las carreteras de la red de interés preferente y básica y de las vías ciclistas en las comarcas de Urola-Kosta y Deba-Kosta (Zona UD) del Territorio Histórico de Gipuzkoa (expediente 4-O-39/2014), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 31 de octubre de 2014 con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

**LEHENA.-** 2014ko urriaren 9an sarrera eman zitzaion, Mugikortasun eta Bide Azpiegituretako Departamentuaren erregistroan, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboari zuzendutako idatziari. Idatzi horren bidez, aipatu foru aginduaren aurkako kontratazio alorreko errekurtso berezia jarri zuten (…) eta (…), enpresen aldi baterako batasuna eratzeko konpromisoaz lizitazioan parte hartu zuten MANTENIMIENTO DE INFRAESTRUCTURAS SAren eta SERKOM, GESTION Y SERVICIOS GRUPO MOYUA SLren izen eta ordezkapenean, hurrenez hurren.

Errekurtsoa jartzeko idatziarekin batera, agiri hauek aurkezten dituzte: parte hartzaileen ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak, errekurritutako ebazpenaren kopia, eta aldez aurretik errekurtsoa jartzearen berri ematen duen idatziaren kopia –Departamentuaren erregistroan urriaren 7an aurkeztua–, hala agintzen

## ANTECEDENTES

**PRIMERO.-** El 9 de octubre de 2014 tuvo entrada en el registro del Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias un escrito dirigido al Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales por el que (…), actuando en nombre y representación de MANTENIMIENTO DE INFRAESTRUCTURAS, S.A., y (…), en nombre y representación de SERKOM, GESTIÓN Y SERVICIOS GRUPO MOYUA, S.L., que concurrieron a la licitación con el compromiso de constituir una unión temporal de empresas, interponen recurso especial en materia de contratación contra la citada orden foral.

Al escrito de interposición se acompañan los documentos que acreditan la representación de los intervinientes, así como copia de la resolución recurrida y del anuncio previo al que se refiere el artículo 44.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real

baitu 44.1 artikuluan Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginak (aurrerantzean, Kontratuen Legea), 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak.

Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSP), efectuado mediante escrito presentado en el registro del departamento el día 7 de octubre.

Errekurtsoaren oinarri diren arrazoiak azaldu ondoren, eskatzen dute deuseztatu dadila eta indarrik gabe utzi errekurritutako esleipena, ez baita behar bezala arrazoitu, edo, bestela, espedientea ikusi ahal izatea, enpresa lizitatzaileen eskaintzak aztertzeko, eta bereziki esleipendunarena, defentsarako eskubidea baliatu eta kontratazio alorreko beste errekurtso berezi bat prestatu ahal izateko.

Tras exponer los motivos en los que fundan el recurso, solicitan que se anule y deje sin efecto el acto de adjudicación recurrido por no haber sido debidamente motivado, y subsidiariamente, tengan vista del expediente que les permita acceder a las ofertas de las empresas licitadoras, y en particular de la empresa que ha resultado adjudicataria, a fin de que se les permita poder preparar, en el ejercicio de su derecho de defensa, un segundo recurso especial en materia de contratación.

**BIGARRENA.-** Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko Idazkaritza Teknikoak Foru Auzitegi honi bidali zion errekurtsoa, dagokion txostenarekin batera. Txosten horretan, errekurtsoaren arrazoiak aztertu ondoren, proposatzen da ezestea errekurtsoa. Hori guztia urriaren 20an sartu zen Auzitegiaren erregistroan.

**SEGUNDO.-** La Secretaría Técnica del Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias remitió el recurso a este Tribunal, junto con el correspondiente informe, en el que, tras examinarse los motivos del recurso, se propone su desestimación. Todo lo cual tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 20 de octubre.

**HIRUGARRENA.-** Departamentuaren erregistroan urriaren 29an aurkeztu zuten eta, ondoren, Auzitegi honetan urriaren 30ean sartu zen idatziaren bidez, (…) eta (…), MANTENIMIENTO DE INFRAESTRUCTURAS SA eta SERKOM, GESTIÓN Y SERVICIOS GRUPO MOYUA SL enpresen izen eta ordezkapenean hurrenez hurren, eskatu dute errekurtsoari uko egin diotela ulertzea.

**TERCERO.-** Mediante escrito presentado en el registro del departamento el 29 de octubre, que tuvo entrada en el de este Tribunal el día 30 siguiente, (…), en representación que acredita de MANTENIMIENTO DE INFRAESTRUCTURAS, S.A., y (…), en representación ya acreditada de SERKOM, GESTIÓN Y SERVICIOS GRUPO MOYUA, S.L., solicitan que se les tenga por desistidos del recurso.

**LAUGARRENA.-** Era berean, gogarazi zion ezen, Kontratuen Legeko 45. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio espedientea etenda geratzen zela, kontuan harturik errekurtso hori esleipen egintzaren aurka aurkeztu zela.

**CUARTO.-** Dado que el recurso se ha interpuesto contra el acto de adjudicación, la tramitación del expediente de contratación ha quedado en suspenso en virtud de lo dispuesto en el artículo 45 TRLCSP.

**ZUZENBIDEZKO OINARRIAK**

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

**LEHENA.-** Errekurtso berezi hau zerbitzu kontratu bat esleitzeko egintzaren aurka jarri da. Kontratu horren balio zenbatetsia 19.123.954,78 euro da, BEZik gabe.

**PRIMERO.-** El presente recurso especial se interpone contra el acto de adjudicación de un contrato de servicios cuyo valor estimado es de 19.123.954,78 euros, IVA excluido.

Horrela, bada, kontuan harturik erregulazio harmonizatuari atxikitako zerbitzu kontratu batez ari garela, hots, Kontratuen Legeko 16.1.b.) artikuluan jasotakoetako bat dela, kontratazio-arloko errekurtso berezia jar daiteke errekurritutako egintzaren aurka, hala xedatua baitago 40. artikuluko 1.a) eta 2.c) apartatuetan. Eta errekurtso horretaz arduratzeko eskumena auzitegi honi dagokio, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortzeko eta arautzeko 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, 2.3.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Por lo tanto, tratándose de un contrato de servicios sujeto a regulación armonizada, de los contemplados en el artículo 16.1.b) TRLCSP, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.c) del artículo 40. Y la competencia para conocer del mismo corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.3.a) del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**BIGARRENA.** Errekurtsoa Kontratuen Legeko 42. artikuluan xedatutako legitimazioaren eskakizuna betetzen duen pertsona batek jarri du, betiere 44.2 artikuluan finkatutako epearen barruan eta asmo horren berri, 44.1 artikuluan ezarritako eran, kontratazio organoari aurretik emanda.

**SEGUNDO.-** El recurso ha sido interpuesto por persona que reúne el requisito de legitimación establecido en el artículo 42 TRLCSP, dentro del plazo previsto en el artículo 44.2 y habiéndolo anunciado previamente al órgano de contratación en la forma prevista en el artículo 44.1.

**HIRUGARRENA.-** Sektore Publikoko Kontratuen Legeak bere 316.1 artikuluan xedatzen du ezen kontratazio alorreko errekurtso bereziak izapidetuko direla 1992ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren arabera, ondorengo puntuetan aipatzen dituen berezitasunekin.

**TERCERO.-** El artículo 46.1 TRLCSP dispone que el procedimiento para tramitar los recursos especiales en materia de contratación se regirá por las disposiciones de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (LRJPAC), con las especialidades que se recogen en los apartados siguientes.

30/92 Legeak bere 90. artikuluan xedatzen du ezen interesdunek atzera egin dezaketela beren eskaeran, eta, hasierako idazkia interesdun bi edo gehiagok aurkeztua bada, inork atzera egiteak edo uko egiteak, atzera egin edo uko egin duenari bakarrik eragingo diola

El artículo 90 LRJPAC establece que todo interesado podrá desistir de su solicitud y que si el escrito de iniciación se hubiera formulado por dos o más interesados el desistimiento sólo afectará a aquéllos que lo hubiesen formulado.

30/92 Legeak bere 91. artikuluan xedatzen du ezen Administrazioak bete-betean onartuko duela atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango duela prozedura; hala ere, ez duela prozedura amaitutzat emango, beste interesdunik aurkeztu bada eta prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interesdun horiek, edo hasitako prozedurako gaia interes orokorrekoa bada edo gai hori mugatzeko eta argitzeko komeni bada hezurmamitzea. Kasu horietan, administrazioak interesdunarentzat mugatu ditzake atzera egiteak, eta aurrera eramango du prozedura

Según el artículo 91 LRJPAC la Administración aceptará de plano el desistimiento y declarará concluso el procedimiento, salvo que, habiéndose personado en el mismo terceros interesados, instasen éstos su continuación, o que la cuestión suscitada entrañase interés general o fuera conveniente sustanciarla para su definición y esclarecimiento, en cuyo caso la Administración podrá limitar los efectos del desistimiento al interesado y seguirá el procedimiento.

Kasu honetan ez da ematen errekurtsoa hezurmamitzen jarraitzeko aukera emango luketen gorabehera horietatik bat bera ere, eta, beraz, onartu egin behar da atzera egin izana.

En el presente caso no se da ninguna de las circunstancias que permitirían continuar la sustanciación de los recursos, por lo que procede aceptar el desistimiento formulado.

**LAUGARRENA.-** Ez da ikusten errekurtsoa jartzean fede txarrik edo ausarkeriarik izan denik eta, beraz, Auzitegiak ez du errekurtsogileei inolako isunik jartzeko asmorik, Kontratuen Legeko 47.5 artikuluak dioena betez.

**CUARTO.-** No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a las recurrentes una multa en los términos previstos en el artículo 47.5 TRLCSP.

Ondorioz, Kontratazio alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

**E R A B A K I T Z E N   D U**

**A C U E R D A**

Atzera egiteagatik amaitutzat ematea MANTENIMIENTO DE INFRAESTRUCTURAS SA eta SERKOM, GESTIÓN Y SERVICIOS GRUPO MOYUA

Declarar terminado por desistimiento el recurso especial en materia de contratación interpuesto por MANTENIMIENTO DE INFRAESTRUCTURAS, S.A. y

SLk jarritako kontratazio alorreko errekurtso berezia.

SERKOM, GESTIÓN Y SERVICIOS GRUPO MOYUA, S.L.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 49.1 xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.1 TRLCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2014ko urriaren 31a**

**San Sebastián, 31 de octubre de 2014**